

TXOMIN=ARAYO

AZTIYA


ixenaz Elizondo'tar Joseba'k
gipuzkeraz asmau ta idatziriko
antzerkija ta
Bilbao-Euzko-Gaztedi'ko
Antzerti - Bazkuna'k 1911'g urtian
egindako sariketan
bigaren sarija irabazi ebana,
bizkayeraz imiñita.

BILBAO'N

VIUDA É HIJOS DE GRIJELMO, Irarkola'n
1912

AN

31405




Bilbao'ko

Euzkel-Antzeriti' Bazkuna'k

Bariola' tar' Abelin'a

TXOMIN-AÑAYO



M- 70330
F- 74287

AV
31405

TXOMIN-ARAYO

AZTIYA

ixenaz Elizondo'tar Joseba'k
gipuzkeraz asmau ta idatziriko

antzerkija ta

Bilbao-Euzko-Gartedi'ko

Antzerti - Bazkuna'k 1911 'g urtian

egindako sariketan

bigaren sarija irabazi ebana,

bizkayeraz imiñita.

BILBAO'N

VIUDA É HIJOS DE GRIJELMO, Irarkola'n
1912

Antzerki onetako notiñak dira:

Txomiñarayo..... Ardanlarija.

Kasilde..... Bere emaztía.

Urtzale..... Korkotxa edo Lepotxea.

Ijitua. Gixonezko bat.

Asturub : Emakume bat.

Alkatia.—*Amamerua edo Aguaziñ*.—*Mikeletea*.

—*Bixargiña*.



EGITĀLDĪ BAKAĀA

Agertokijak irudiko dau ēri txiki bateko ardandegi bat bere mai, jesarleku ta mostradoraz; esker-eskuman eta atzian ate bana.

LENENGO IRUDIJA

TXOMĪNĀRAYO TA KASILĒE

- TXOMĪN. Ixilik zagoz, emakumia; belarĭjak apurĭtu bialĭ-ian daukodaz zeure jardun ofegaz.
- KASILĒE. Ta ni zure afayuak entzuten moĭno-tontoferaĭno beteta nago.
- TXOMĪN. Etzara ixilduko... ĆNoz afayo etengo yatzu min ori edo abo-txiliĭna?
- KASILĒE. ĩUt ortik min geizto! Obe zenduke jeniĭno ziĭal ori onduko ba'zendu, iĭnoren txarĭk esaten ibili barik.
- TXOMĪN. Sosuak beliari ipurĭ baltz. Zu onduko zarean ba-ĭno lenago ura juango da efekea gora ta ugarazi-juak bixarĭkaz ikusiko doguz.

II IRUDIJA

LENGUAK ETA URTZALE

- URTZALE (*sartuas*). ĆUr preskorik baukozube?
- TXOMĪN. ĆZer ur presko ta zer afayo? Emen ezta ardaua baĭno emoten.
- URTZALE. Ofexegalik nentofen ba. Eztautsoe edozeĭi, ura eskatuta ardaorik emongo niri lez.

- TXOMIN. Len be, bañiketaz asetuta nago. Tira ¿zenbat ardao bial dozu?
- URTZALE. Basobete, edo... egon, egon, ataraidazu kuartilo bat, gauñ neure bixiko egafi naz ta. (*Txomiñek saragitik atarata ardaua damotso*).
- KASILDE. Parkatuidazu baña jakin leike nungua zarean?
- URTZALE. Itñfondokua naz ta Urtzale dot ixena.
- TXOMIN. Ur zalia zara bai, jafayo gofi bat! Goxian goxetik ardaua kuartiloka edaten asi gura dozu ta.
- KASILDE. ¿Eta zuri zer dautzu, pitxetka edan gura ba-dau be? Zeu beintzat etzara baraurik egongo ardaotik edo beste zerbañetik.
- TXOMIN. Nik edatia ezta ikaratzekua, berez nazalako egafberea.
- KASILDE. ¿Bestiak zer dira ba? ¿Eztauke eztañirik zeuk letxe ala?
- TXOMIN. Bai, baña ez zuk añako miñik, bañitxu afayua.
- KASILDE. ¿Ixilduko etezara zeure afayuokaz? Txomin-afayo detu eutzunak ondo batiau zinduzan.
- URTZALE. Neu nazala ta etzaleze asafatu.
- TXOMIN. Zu zarala ta ezta gure asafia; onantxe gabilz gu egunak daukozan ordu guztijetan... beste zeregiñik be eztaukogu ta.

III IRUDIJA

LENGUAK ETA AZTURUBA

- AZTURUBA. (*Atetik*). Zestela edefak, etxeandria.
- KASILDE. Eztoguz bial.
- AZTURUBA. Txit merke emango dizkitzut.
- TXOMIN. Ekafixu berau sañtuta eukiteko mimiñezko kayola bat, neuk erosikotzut.
- URTZALE. ¡Ja! ¡ja! ¡ja! ¡Au dok Txomin-afayo afayual
- KASILDE. Juan zañe emakumia, onek eztautzu ezer erosiko ta.
- AZTURUBA. (*Auñera sartuta*). Ezer erosten ezpa'dirazute ere, zeozer artu bial det, baraurik nago ta.
- KASILDE. ¿Zer artu gura dozu ba?
- AZTURUBA. Ekatzu ogi-puska bat eta kuartilo bat ardo.

— 7 —

- KASILDE. Zu be bai-zara egafberaren bat.
AZTURUBA. Txikitatik naiz onelakoxia.
KASILDE. Nire gixona lakoxia orduban.
TXOMIN. ¡Bafitxu madarikatuba! ¡Saspi mila afayok mututuko al zatube!
URTZALE. ¿Nun daukozube kortia?
TXOMIN. ¿Zeregiñen bat daukozu kortan ala? Beyak ikustiafen jua gura ba-dozu alpefik juango zara; gurian eztago beirik.
URTZALE. (*Sabelari esku bijakas eutsinda*). Ezta beyak ikustiafen; beste zeregin bat daukot.
TXOMIN. Zuaz, zuaz, gixajo ori, ezagun dozu zer dozun ta. (*Juaten da Urtzale kortako atetik*).

IV IRUDIJA

TXOMIN, KASILDE TA AZTURUBA

- AZTURUBA. Saskirik erosi ez dirazuten eskeroz etofkixun ona asmatuko dizutet.
KASILDE. ¿Ze etorkixun ta juakixun? Naikua lan ixango dozu zeuria igafita.
TXOMIN. Ixilik zagoz bai, onek bakafik berba egin dagijan; au, noz ta zelan mututuko dan igarten ba-dozu, gosarija duban emongo dautzut.
AZTURUBA. Ori asmatzen efez da; erosi zazu kotofa bat eta inbiriz mututuko zatzu andria.
KASILDE. (*Itxuskija artuta asturubari joteko kiñua egiñen dautsola*). Alde emendik zazkel ori!
TXOMIN. Itxixu bakian, egija esan dau ta. (*Asturubari*). Ardao saltziaz gogañu naz ta ¿esango daustazu zelan aberastuko nazan?
AZTURUBA. Erosi zazu loteriako txartel bat eta egortzi zazu korkoiz baten tontofian; lenengo sariya ateratzen ezpa'dezu, lepua moztu dezakitela.
KASILDE. Zagoz ixilik, bafitxu ori; guzufa pafa para dari-xu ta.
TXOMIN. ¡Au dok poza! Korkotxari igortzi ta beste barik aberastuko naz. (*Kasilde'ri*). Zuaz estankora ta erosi egixu loterijako txantel bat.
KASILDE. Gixona, zoratu egin yatzu ala?

- TXOMIN. Zeuri bai zoratu; txantela ekañidazu bañiketa gixigaz.
KASILDE. Ekafi bialko dautsot bakia gura ba dot. (*Juaten do erdiko atletik*).

V IRUDIJA

LENGUAK ETA URTZALE

- URTZALE. (*Eskumako atletik sartuta*). ¡Au da deskantsuba artu dodana!
- TXOMIN. Gure ortuko babakeztabe ofegaz kalterik ixango.
- AZTURUBA. (*Urtzaleri*). Gixontxua nai al du etofkizun ona asmatzia?
- URTZALE. ¿Etofkizun ona? ¿Nor datof ba, obispua ala efege?
- AZTURUBA. Ez diot ori esan nai; beofen...
- URTZALE. Beofak mendijan; ni enaz beofi, zu edo i baño.
- TXOMIN. (*Bere artian*). Korkotxa be ezta txafa miñaz; nire andriaz buztañtu lei.
- AZTURUBA. Esan nai dizut edo diyat, eze, zure edo ire etorkizun ona asmatzia nai dezun edo nai dekan.
- URTZALE. ¿Etofkizun ona bafiro be? Etofi bial onekua ixan ba'nintz, eneban ixango bizkafian daukodan au.
- TXOMIN. (*Urtzaleri*). Tira, itxijozu bafiketeari ta adituyo-zu zer diñotzun.
- URTZALE. Ia ba, esaxu, emakumia.
- AZTURUBA. Denbora gutxiren bafuan, aberaztuko zera.
- URTZALE. ¿Ni aberaztu? Ez beintzat eguzkija oraingo bidian ba-dabil. ¿Nundik nora aberaztuko naz ba?
- AZTURUBA. Zuk badaukazu anai bat erbestian.
- URTZALE. (*Añiturik*). ¡Egija dal (*Bere artian*). ¿Zelan jakin ete dau?
- AZTURUBA. Anai ori, laster etofiko zatzu ziara aberaztuta.
- URTZALE. Ez geyago esan, ez geyago esan; naikua dot esan daustazunagaz.
- AZTURUBA. Zau de gizona, zau de oraindik. Eta egun batetik bestera usterik gutxienean ilko da.
- URTZALE. Orduban, daukon guztija neuretzat ixango da.
- AZTURUBA. Guzi-guzija.

— 9 —

URTZALE. (*Ixanpon batzuk sakeletik atarata asturubari emoten dautso*). Eutsiz; ardaotarako neukan diruba da baña... egin daustazun mesediagatik.

VI IRUDIJA

LENGUAK ETA KASILDE

KASILDE. (*Sartzen dala*). ¿Ze mesede gero? Eta ¿zinistu egiten dautso? (*Asturubari*). ¿Ondiño be emen zagoz?

TXOMIN. ¿Eta nire andria nozko lez mututuko da?

AZTURUBA. Zeuk kotofa erosi bezin laster.

KASILDE. (*Itxuskija artuta asturubari abijaten yako*). ¡Alde emendik, bañitxu guzurti oril (*Asturuba urteten da igesi erdiko atetik*).

KASILDE. (*Ixomin'i txantela emonda*). Eutsi, zorijoneko txantel ori. (*Juaten da eskekeko atetik*).

VII IRUDIJA

IJITUA, TXOMIN, URTZALE.

IJITUA. (*Sartzen da tximiño bat biskañian eta sorbalda ganian kotofa bat daukon kayola bat dakazala ta auspo-soñua jotzen*). Yinkuak dako-tzubela adu on, yaunak.

TXOMIN. ¿Musikea be badogu?

URTZALE. Komediантиak eñiratu yatzubez, Txomin.

IJITUA. Mona dantzán ikusi nai baduzute, sos bategatik ikusiko duzute.

TXOMIN. Eztogu tximiño biañik; naikua tximiño gara geu be gu.

IJITUA. Orduan, kotofak, gure presidentak senatuan egin duan sermoya egingo dakotzute.

URTZALE. ¿Zer? Ijituak be presidentia daukozube?

TXOMIN. Bai ba; euren aziendak gobernetako.

IJITUA. Gure presidenta dela eñaitia nai ezpaduzute, prantzesena dela eñango dut.

TXOMIN. (*Eskubakaz bekokija jota*). ¡Au dok erea! (*Ijituari*). Egon, egon. ¿Kotofa ori salduko zeunke?

- IJITUA. Ez bait daukat saltzeko, baña diru premiyan nagoalarik, mona ta kotoña salduko dakotzut.
- TXOMIN. Eztot bial tximiñorik.
- IJITUA. Ez bait saldu nezazkike biak baizik.
- TXOMIN. (*Bere artian*). Tximiñua be erosi egin biarko dautsot. (*Ijituari*). Zenbat gura dozu ba animaliya bijakaitik?
- IJITUA. Eun libera; ez geyago ez gutiago.
- TXOMIN. Zenbat dira eun libera?
- URTZALE. Eun peseta edo eun lañfleko.
- IJITUA. Nai duzu edo ez?
- TXOMIN. Bai zera! Gure andriak triminduko ninduke; gau ta egun ixildu barik ekingo leuskijo ta.
- URTZALE. (*Ijituari*). Askotxu da; eskatu dozunaren erdijaz be naikua dozu.
- IJITUA. (*Txomin'i*). Torikizuz, bada, alimaliak; baña bigar arte eskutuan eduki biar bait dituzu etxean oitutzeko. Ekaizkidazu befogetamañ liberak. (*Txomin'ek emoten dautsoz befogetamañ laurlekuak eta artsen dautsoz tximiñua ta kotoña*). Orain agur yaunak. (*Juaten da erdiko atetik*).
- BESTE BIJAK. Aguf, zuaz ondo.
- TXOMIN. (*Eskekeko ate-aldera duala*). Sabaira daruadaz, bijar arte an egon datezan; oinguan gure andriak zietz mututu edo estanda egin bialko dau. (*Juaten da*).

VIII IRUDIJA

URTZALE BAKARIK

- URTZALE. Bakotxa bere zoruak darabil. Egi andija esan eban au esan ebanak! Txomin gixajua? Zoratu bial yako bere andria mututu gurarik. Kotoña erosi dau andriaren jardunak ixiltziafen. Orain, baten lekuban, kotoña bi ixango dauz ardanlari efukafijak. Ni be bai-nabil bixibidia zuzendu ezi ñik; baña gaurkuagatik, sabel-aldia gozatu biar dot, Txomin'en lepotik bada be. Bijotz oneko gi-

xona dirudi berak zakaf samafa ixanafen, eta zakafa ixan bifa be badau puskat daukon andriaz; txifiskilia baño eratsubagua da bafiketan asten danian, eta asteko, bafiz, ezer eztau bifa. Nik ezta-
 kit, emakume askori ofenbeste berba egiteko arnasea ta txistuba nundik sortzen yakezan; eztauke nire antzik; niri, beintzat, bigafen berbarako, ego axiak jota letxe eztafija legortzen yat ta txistuba ingurduba baño lodijago; orduban miña abo sabayari iratzita eukiten dot eta txori emia baño mutubago geratzen naz. Baña jau da patxarea daukodana! Onik onenian kartzelan saf-tuko naben be ezta-
 kit eta emen nago neure gibel andijaz, idoroko enaben lekuraño igesi egin barik. ¡Zenbat gaiztakeri eragiten etedauz bifa-ixanak! Bildotza baño otzanagua nazala, bifa-
 gaitakerija eragin daust. Gose ixan naz ta osoro auldu biar neban bai, ta sartu naz artzain-txabola baten, esnia edo eskatzeko asmuaz. Ezeguan inortxu be ta zer egin dot? Artu dot... (*Ibille-otsa entzuten da*). Baña batebat datof.

IX IRUDIJA

URTZALE TA TXOMIN

- TXOMIN. (*Sarturik*). Orain, zati baterako bakia egin dogu. Andria etofiko ezpa'litz gurako neuke, afayobat,
- URTZALE. ¿Zu zaran gixonaz, andriaren bilduf zara? Ezta-
 kit ofenbeste afayogaz zelan kiskaldu eztozun oraingo.
- TXOMIN. ¿Kiskaldu diñozu? Berak neuri kiskaltzen daust odol guztija; besapian daukodan txori au be berak egindakua dot.
- URTZALE. ¿Zer? ¿Galtzarpien kayolia daukozu?
- TXOMIN. Kayolarik eztaukot baña txorija bai.
- URTZALE. Ta eztau igesi egiten?
- TXOMIN. Atia zabaltzen dautsot baña eztau alde egin gura, afano madarikatubak

- URTZALE. ¿Añanua da ala?
- TXOMIN. Ez gixona, elaya.
- URTZALE. ¿Elaya? Orduban, oraingo pasakua da.
- TXOMIN. ¡Bai zera! Urte bijan aldian daukot eta; barberua etorten yat egun birik baten osakuntzia egitera.
- URTZALE. Zer ba, txorija gexorik dago ala?
- TXOMIN. ¡Ez gixona! ¿Ze afayo da berau? Neure andria baño bafitxubagua zara. ¿Galtzarpian sortu oi dan zaldañari elaya deñuten yakola eztakixu ala? erderazko *golondriño*?
- URTZALE. ¡Angela Maria! ¡Zaldaña daukozu orduban!
- TXOMIN. Ondo zitala gero; laster etofiko yat bixargiña osakuntzia egitera baña, alatxanpaña bidalduko dot, eztaust ezebe auferazoten da.
- URTZALE. Ori uyaz osatuko zeunke.
- TXOMIN. ¿Uyaz? Imiñi egixu zeuk miñian (*Asaratuta*). ¿Mormuaz nagola uste dozu ala?
- URTZALE. (*Bere artian*). ¡Au dok keniño txafa daukonal! (*Txomin'i*). Zeure onerako esan dautzut, baña ondo ezpaderitxozu, parkatuidazu.
- TXOMIN. Bafiketak itxita, dangadatxu bana edan daigun, Urtzale.
- URTZALE. Gura dozun guztija, Txomin.
- TXOMIN. (*Ataraten dau zaragilik pitxer bete ardao ta mayan imiñita gero jezarten dira. Beteten dauz Txomin'ek bijen edontsijak eta Urtzale'ri eskintzen dautso bata esanaz*). Tira Urtzale, ofenbeste bafiketaz egafi ixango zara ta edan egixu.
- URTZALE. (*Edon'sija artuta*). Eskafik asko Txomin. Zure elayaren osatziagatik. (*Edaten dau*).
- TXOMIN. Eta nik edaten dot zeure korkotxaren osasunagatik. (*Edaten dau*). ¿Zelan afayo egin zenduban lepotxa zofotz ori?
- URTZALE. Nik eneban egin; amak egin eustan.
- TXOMIN. Beraz, jayotzatik daukozu.
- URTZALE. Alan ixan biar dau, neure gomuta guztijan neugaz daukot eta. (*Bere artian*). ¿Guzufian afapauko ete nau?
- TXOMIN. Iruditxen yat, ona saftu zarean ezkerro azi egin yatzula.

— 13 —

- URTZALE. Ixan dateke; ilgoran azi egiñen yat.
TXOMIN. ¿Eta ilberan?
URTZALE. Gitxiñu.
TXOMIN. Beraz, ilargijari igarteko eztozu pornostiko bial-
ik ixango?
URTZALE. Ezta palometrorik be.
TXOMIN. ¿Itxiko daustazu lepotxearen ganetik neufija pa-
setan?
URTZALE. Leun-leun ba-da bai; baña ardura andiz ibili zaite
alpefik galdu ezlagistazun.
TXOMIN. (*Jagiten da ta Urtzale'k ikusi бага ataraten
dau zakeletik loteria-txantela ta lepotxearen
ganetik erabilten dau igortzijas; gero lepo-
txeari usain egiñaz ta txantela sakeleratur-
ik*). ¡Au da usain gozua lepotxean daukozuna!
Gazta-usaña dala esango neuke...
URTZALE. Bulafekua nintzala emon eusten ayez beteta dau-
kot eta.
TXOMIN. Eztaukozu gose bildufik orduban.
URTZALE. (*Bere artian*). Baña bai juezena.
TXOMIN. Edan daigun, Urtzale, laster aberaztuko garanen
pozañen ba'da be.
URTZALE. Nik beintzat ziñistu dot azturubak esan daustana;
nire anayea, len be, oso zufa ta aufetuzalia zan
eta aberaztu dala entzutiak enau bape ikaratzen;
etofiko da, ta pulmuniya bat ařapauko dau, edo
txakur amufaturen batek usigi egingo dautso, ta
ilgo da; orduban, bere diru guztijak niretzako
ixango dira.
TXOMIN. ¡Ori ori Urtzale, ta alan ixan bedi!

X IRUDIIA

LENGUAK ETA BIXAÁGIÑA

- BIXAÁGIÑA. (*Sarturik*). Kaxio gixonak.
URTZALE. Ondo etofi.
TXOMIN. (*Bere artian*). Emen da Sangrijuelas ařayo au.
BIXAÁGIÑA. ¿Zer diñozu Txomin?
TXOMIN. (*Asaře*). Itxidazu bakian ařayo bigaz enago bafi-
ketarako ta.

URTZALE. Ezegijozu berba egin, andriaz asafatu da ta.

BIXARGIÑA. Nik zer egingo dautsot asafatu ba-da? Aizkidetu datela. (*Txomin i*). ¿Zelan daukozu txorija? ¿Ikusiko dogu ala?

TXOMIN. Ikusixu aidian; ez nire galtzarpekua, zirtzil afayua!

BIXARGIÑA. ¿Osatu yatzu ala?

TXOMIN. (*Emakumien abotsa egiñaz*). ¿Osatu yatzu ala? Berbetan nire andria dirudixu. ¿Noz afayo ikasiko etedozu gixonak lez berba egiten?

BIXARGIÑA. Gaur, guztiz asafe zagoz; andriak txafito artu zatu itxuxaz.

TXOMIN. ¿Zer andra ta zer andra oste? Obe zeunke osakuntzan geyago aleginduko ba'zintz, nire moduan inor sufriduten euki barik.

BIXARGIÑA. ¿Nik zer egingo dautsot ba, zu o lol ta aragi txafiekua ba-zara?

TXOMIN. ¿Zer aragi ta zer urdai? Txafa ixanda be, zatgalanta jango zeunke, goseti afayo ofek.

URTZALE. Bai neuk be, orain daukoda plakelijaz. ¡Au da barau luzia! Aste santuan nagola iruditxen yat.

BIXARGIÑA. Tira Txomin; gura ba-dozu osakuntzia egingo dautzut

TXOMIN. ¿Osakuntzia? Ilkuntzia esan ba'zendu obeto esango zenduban; osatu egixu onen lepotxea. (*Urtzale'galik*).

URTZALE. (*Atseraturik*). Ez ez; ez ukutu niri.

BIXARGIÑA. Ez gixona ez; urte askotan iraun dagixula.

URTZALE. Alan ixan bedi.

TXOMIN. Eta alan ixan bedi diño! ¡Ori da konformidadia!

URTZALE. ¿Zer egingo dautsot ba?

TXOMIN. Onezkero, aizkoreaz ebagiko neban neuria ixan ba'litz, Anboto'ko txuntxufa dirudijan lepotxa itxusi ori.

BIXARGIÑA. Txomin; osakuntzia egitia gura ezpa-dozu egin daiguzan kontubak eta emoidazu emon bial dautazuna.

TXOMIN. ¿Kontubak egitia gura dozu? Egixu kontu, kontuz, konturatu garala ta kontau egijozu amamari.

URTZALE. ¡Au dok kontuba! (*Bixargiña'ri*). Kontuz ibilizate Txomiñegaz,

— 15 —

BIXAÁGIÑA. Eztautsot amamari kontauko; alkatiari kontauko dautsot kontu au. ¿Egingo doguz kontubak ala ez?

TXOMIN. Naikua kontu daukot nik galtzarpeko txorijaren zulakadak kontetan. ¡Zuaz alatxanpañal!

BIXAÁGIÑA. ¿Eztozu gura? Alkatiagana nua ba. (*Juaten da bixaágiña erdiko atetik*).

XI IRUDIJA

KASILDE, TXOMIN, URTZALE

KASILDE. (*Sáitzen*). ¿Zer dira zaratok? ¿Ezetedogu bial unebeteko bakerik?

TXOMIN. Zu lako diabruak diran lekuban bakia nekez ixango da. Emakumia; gu bakian gagoz ta zagoz ixilik mila afayogaz.

URTZALE. Orain be afayuak milaka urten yakoz abotik; afayok beteriko lexen bat dauko saman Txomin-afayo onek.

KASILDE. Eztakixu ondo onen onduan daukoda inpernuaren bafi, batian afayua dala ta bestian besapeko elaya dalako.

TXOMIN. Ta nik zu lako kotofiagalik, Neure min eta atsakabe guztijak zeure bafitxukerijakalik dira; igafita daukot.

URTZALE. Bai-dafeke, bai; emakumiaren miña zofotza da.

KASILDE. ¡Zeuria leuna! Ardaa miazkatzeko bai. Obe zeunke zof dozun ardaua pagauko ba'zendu.

URTZALE. Emakumia, etzale estutu; aberaztu nafenian, propiña ta guzti pagauko dautzut eta.

TXOMIN. Tira Kasilde, zuaz sukaldera saspireun afayo ta erdiyaz; bakia bial dogu, bakia.

KASILDE. Enaz juango emen zer ixan dan jakin arte.

URTZALE. Utsa ixan da; bixaágiñari eztautso pagau gura ixan Txomiñek afazoyaz ta.

TXOMIN. (*Urtzale'ri*). Txitia letxe itoko zinduket, bafitxu madarikatu ori. ¿Orain zer dauko andriak zer jakin bixaágiñaz jazo yatana?

KASILDE. ¿Ori be bai? Neuk pagauko dautsot, soñekoraño-kuak saldu bial ba'dodaz be.

- URTZALE. Itxijozu, Txomin, soñekuak saltzen; gero salba-
jiak lez tapafabuaz ibiliko da ta.
- TXOMIN. Bai, ta bera ta zu, ferijetako bafaka baten atara-
ko zutubet. ¡A zer penomeno paria!
- KASILDE. Orixe be egingo zeunke zuk; baña eztozu lortuko
zeure afayo guztijakaz be.
- URTZALE. (*Sabelari elduta*). ¡Ai... ai... ai!...
- TXOMIN. ¿Zer dozu gixona?
- URTZALE. ¡Nik il bial dot! ¡Onek dira miñak!
- KASILDE. ¿Nun?
- URTZALE. Estiak, urdala, ta birijetarañoko guztijak efeten
daukodaz. ¡Ail... ¡Ail...
- TXOMIN. Ori ezta ezer, gixona; lastef juango yatzu.
- URTZALE. Ez, ez; ekafidazube osagilia edo abadia, il bial
dot eta.
- TXOMIN. (*Oratsen dau Urtzale jausi estaten eta erua-
ten dau aulkijan jesartera*). Jezafi zate emen
eta juango yatzu; neu be olan egoten naz elaya
minka azten yatanian; zuri be elaya afayoren
bat estietan sortu yatzu.
- KASILDE. Edo ardaukumia, zure besapekua Iakua.
- TXOMIN. ¡Bafitxu afayua!
- KASILDE. Banua osagiliaren bila, korkotxagaz naibagaren
bat ixan eztaigun. (*Urtetera duala sartzen dira
Bixargiña ta Alkatia*).

XII IRUDIJA

LENGUAK, BIXARGIÑA TA ALKATIA

- URTZALE. (*Didarka*). ¡Ai nire estiak, ail
- ALKATIA. ¿Nor da estietatik gexorik dagona? (*Urtzalefi*).
¿Zu zara?
- URTZALE. ¡Bai jauna!... ¡Ai nire urdala!
- ALKATIA. ¿Zer? ¿Urdaletik be bai?
- URTZALE. ¡Bai jauna! ¡Ai nire birijak!
- ALKATIA. ¿Birijetatik orain?
- URTZALE. ¡Bai jauna! Il biar dot.
- ALKATIA. (*Bixargiña'ri*). Tira, Sangrijuelas jauna; ikusixu
onek zer gaitz daukon.

- BIXAÁRGIÑA. (*Urtzale'ri pultzuba artuba*). Atara egixu miña.
- URTZALE. ¿Zetarako?
- BIXAÁRGIÑA. Atara egixu ta esango dautzut.
- TXOMIN. ¡A txatxuba! Miñian estiak ikusteko ispiluba daukola uste dozu ala?
- BIXAÁRGIÑA. (*Urtzale'ri miña ikusita*). Ardao-gatxa dauko; ardao txafak estiak efe dautsoz.
- TXOMIN. Ez nik emondakuak.
- URTZALE. Zeuk emondakuaz gexotu naz ba, eztot edan besterik eta.
- ALKATIA. Txomin ¿zer zikulu saltza egiten dautsozu ardauari? ¿Zer botaten dautsozu?
- TXOMIN. (*Burubari ats egiñas*). Jauna, nik eztautsot gauza txafik botaten, ur puskaren bat baño.
- ALKATIA. Ura botaten dautsozu beraz. ¿Zeuriari be bai?
- TXOMIN. Neurari... ez ainbeste.
- ALKATIA. Eta alan be, ¿etzara ondiño aberaztu?
- KASILDE. Berak asko bial dau ta.
- ALKATIA. (*Kasilde'ri*). ¡Ixi, emakumiak! (*Txomin'i*). Ardauari ura egiten dautsozula ta Sangrijuelas'i eztautsozu pagau gura?
- TXOMIN. Jauna, nik pagau gura dautsot, baña osatuta.
- BIXAÁRGIÑA. ¿Zegatik eztaustazu itxi osakuntzia egiten?
- ALKATIA. Tira, naikua da; neuk jakingo dot kontu au erabagiten. (*Bixaárgiña'ri*). ¿Zer osagai agintzen dautsozu gexuari?
- BIXAÁRGIÑA. Kipula egosijen ura artu dagijala ta osatuko da.
- ALKATIA. (*Kasilde'ri*). Kipulak egosixuz ta ura ekañijozu.
- KASILDE. Bai jauna. (*Bai dua Kasilde zabaiko atetik*).

XIII IRUDIJA

LENGUAK ETA AMAMERUA (AGUAZIŁA)

- AMAMERUA. (*Erdiko atetik*). Egun on daukoznbela. ¿Alkatia emen da?
- ALKATIA. Emen nago bai; erdu aufera.
- AMAMERUA. (*Aufera etorila Alkatiari damotso idazki bat*). Au bidaldu dabe be ofentzat.
- ALKATIA. (*Dartso alkatiak eta barutik dataraz inguri*

bat eta antzezi (efetrato) bat; eta ingurija darakur onan):

«Urde-uri'ko alkate jauna: Gixon ixugatijak etofi yakuz atzeñtik eta zur egon zadikez onetaikoren bat ofaño jua eztañun. Gixon onen asmua da Kristiñau guztijak iltia». (*Bestieri*). ¿Entzuten dozube?

TXOMIN. Ni enabe ilgo, beintzat; portestante egingo naz ta.

BIXARGIÑA. Naikua portestante zara len be.

ALKATIA. ¡Ixi! (*Irakurten*). Gixon gezto ofetaiko baten antzeztija (efetratua) bidaltzen dautzut, ofaño bera eldulia jazoko ba'litz ezautu dagixun; korkotx antzekua da, baña korkotxaren lekuban bonba bat darua bizkafian; kontuz ibili zate, Urde-uriko alkatia, anarkistea da ta. (*Alkatiak aldizka Urtzale'ri ta antzeztijari begiratuta diño*): ¿Zer da au? Antzeztikua ta berau bat dira. (*Urtzale'ri*). Anarkistea zeu zara. ¿Zer dozu bikafeko ori? ¿Bonbia?

URTZALE. Ez jauna, zera...

ALKATIA. Emodazu bonba ori edo txikiñuko zatut, gixon iltzale geiztua. (*Eltzen dautso Urtzale'ri besoeñtik eta amameruari diñotso*). Aguazila, kendu egijozu bonbea.

AMAMERUA. (*Bizkafian eskuba sartuta jakepetik ataraten dautso Urtzale'ri gastaya; egiten dauzan alegiñakaz zegozer apurtu yakolako botaten dau luñera esana*): Efementau yat. (*Its onek entzunda laritxen dira guztijak. Txomin mostradore-atzian eskutetan da; Amamerua maipian; Alkatia erdiko atetik igesi juaten da ta Bixargiña sabaikora*).

URTZALE. (*Gastaya jasota*). Gixonak etzateze bildurtu gaztaya da.

ALKATIA. ¿Gaztaya? ¿Zuk gaztayaz gixonak ilten dozuz ala?

TXOMIN. Bai, afatoyak letxe.

AMAMERUA. Gaztaya ba'da, il baño len amaiketakua egingo dogu.

URTZALE. Artzain txabola baten artu dot, gose nintzan da.

ALKATIA. Itxixu ba geldi-geldi mai-ganian eta ziñistuko

dautzugu. (*Isten dau Urtzale'k mai-ganian. Alkatia'k amameruari*): Aguazi!a, usain egijozu ia gaztaya dan ala ez.

AMAMERUA. Nik eztot usañik sumetan, jayotzaz usaimen bakua naz.

ALKATIA. Txomin, zuk egijozu ba.

TXOMIN. ¿Nik? ¡Bai zera! Efementauta, sufa aidian eruan-go leuskit; obe ixango da nire andriari detutia.

ALKATIA. Deñu egijozu ba. (*Bere artian*). ¡Andra kotadea! Bonbeak estanda eginda ilgo dau.

TXOMIN. (*Deska*). ¡Kasilde! ¡Kasilde!

XIV IRUDIJA

LENGUAK ETA KASILDE

KASILDE. (*Sartzen da kotoña-kayolea eskuban eta tximiñua besapian dakazala ta Txomin'i diñotso*): ¿Zer dozu ofenbeste Kasilde ta Kasilde'gaz? Zuri be estietako miña egin yatzu ala?

ALKATIA. Emakumia, zabiltz arin. (*Arituta*). ¿Baña zertzuk tresna dakazuz? ¿Pamelijaz zatoz ala?

TXOMIN. (*Asaie*). Itxixuz tresna ofek egon diran lekuban, eta usain egijozu mai-ganeko ofi, ia gaztaya danik igarten dautsozun.

KASILDE. ¿Baña zer darabixube danok eskutauta? ¿Kubika zabixe ala?

TXOMIN. Tira, usain egijozu miña afayogaz. (*Bere artian*). Gurago neuke efementauta miña kenduko ba' leutso.

KASILDE. (*Juan eta mai-ganekuari usain egiten dautso*). Gaztaya da; ondo usain edeñekua ixan be.

ALKATIA. Atzamaña sañtu egijozu, ia bafuban ezer ete daukon.

KASILDE. (*Sartzen dautso atzamaña ta miaskatzen dau*). Idiazabal'go gaztae bafija da.

TXOMIN. (*Mostradore atzetik ezdira urtenda*). ¿Bonbea ezta beraz? (*Bestieri*). Tira, zetan zagoze of eskutauta? ¡A zelako mutilak zubek geña baterako! (*Erdiratsen dira danak euren eskutu-lekubetatik*).

- ALKATIA. Sustua kentzeko gaztaya jan daigun. (*Txomin'i*).
Atara egixu pitxar bete ardao ta esaiguzu zetar-
ako daukozuzan kayolako txori ori ta tximiñua
etxian gordeta. ¿Ume ordiak dozuz ala?
- TXOMIN. Egija esango dautsot: Nire andria ain da bafi-
txuba...
- KASILDE. Ta zu, ixila, afayoka asten zaranian.
- ALKATIA. ¡Emakumiak ixilik! Esaxu, Txomin, esan bialf do-
zuna.
- TXOMIN. Ain da bafitxuba eze, galtzaípeko txorija be,
bere bafiketak dirala ta urten yat.
- KASILDE. Ardaugatik.
- ALKATIA. (*Kasilde'ri*). ¡Ixil... edo multauko zañut.
- TXOMIN. Baña nire zorijoneko, ara nun etofi yatan gatxar-
en osagaya agintzera azturu igarle bat.
- ALKATIA. ¿Zer ba, bedafen batzuk agindu dautzuz ala?
- TXOMIN. ¡Ezta! Kotofea erosteko agindu daust nire Kasil-
de inbidijaz mututu daten, eta andik lastef ijito
bat etofi yat bere onek ekazala; Urtzale bitarte-
ko dala tratuba egin dogu ta, ona orain ze gauza
edefen jabe egin nazan.
- KASILDE. ¡Edeñak dira bai demontretan! ¡Zeu lakoxiak!
- URTZALE. Berbagile ona eida kayolakua.
- ALKATIA. (*Txomin'i*). Berba egijozu, Txomin.
- TXOMIN. Berialaxe. (*Txomin'ek artzen dau kayolea ta
mai-ganian ipinten dau esana*): Tira, kotof-
atxu, esan egijoezu zerbait onei. (*Estau ezer
erantzuten*).
- ALKATIA. Ointxe ona egin dozu, andria mututu bialfian,
kotofea mututu yatzu.
- TXOMIN. Ez, afayua; berba egin biarko dau, edo samia
bijortuko dautsot. (*Kayolakuari*). Kotofa afa-
yua, berba egingo dok ala ez? (*Kotofea ixilik*).
- URTZALE. ¿Zelan gura dozu berba egin dagijan pikuba lo-
tuta daukola?
- TXOMIN. Egija da ixan be. (*Kayolako atia sabalduta
txorijari pikuba askatsen dautso esana*):
Orain, orain egingo dausku Prantzijako presi-
dentiak senatuban egin eban sermoya. Tira ko-
tofatxu, asi zerbait esaten. (*Txorijak egiten dau*

beliak lez ¡kua!... ¡kua!... ta danak asten dira bareka),

ALKATIA. Txomin, zure txorija belia da. ¡Edefa sartu dautzu ijituak!

TXOMIN. Ilgo dot olakorik egin ba'daust. ¡Amaf ogefleko baño eztabe balijo!

KASILDE. ¿Amar ogerleko? ¡Gixon etxe-ondatzalia! Zeuk kentzen daustazu osasuna, ez nik zuri.

TXOMIN. ¡Zeñi atuten yatzube txoritan?

URTZALE. Neuri.

TXOMIN. Ikusi egixu ondo ba, kotofea ala belia dan.

URTZALE. *(Txorijari ganetik eskuba igarota).* Txori au ganetik pinlauta dago; azpija kedafa baño balzagua dauko; bela utsa da.

TXOMIN. ¡Diabruan adafak! Ilgo dot ijito deungia.

ALKATIA. Aunena ikusi dogu; orain, atsakabia aztuteko, tximiñuari dantzan eragijozu, Txomin.

TXOMIN. *(Artzen dau tximiñua ta mai-ganian ipinten dau esanas).* Tirok, tximiñotxu, eu ixango az etxeko maliena; jantzan egik Prantzijan letxe.

URTZALE. Onek be mustufa lotuta dauko.

TXOMIN. *(Askatzen dautso mustufa).* ¿Zelan ito ezete da alimani au mustufa lotuta arnasarik artu ezinda? Tirok, tximiño, jantzan egik polit ofek. *(Jantza ordian katu-miaua egiten dau. Txomin'ek joten dau ukabilaz ta bestiak purust egiten dautso. Danak bareka).*

ALKATIA. Katuba sartu dautzube tximiñotzat.

KASILDE. Emendik aufera Txomin afayo defu bafian Txomin-kaiku defuko dautzube.

TXOMIN. Zagoz ixilik, emakumia, zeu il etzaidan; au be neuri jazo baf yatan. ¡Eztodaz alper-alpefik emon amaf ogerlekuak!

URTZALE. Andria zoratzen dago pozez; orainguan sei ilabetian ezta ixilduko.

XV IRUDIJA

LENGUAK, PORALA, AZTURUBA TA IJITUA

- (Saftzen dira Azturuba ta Ijitua Poralak dakazala).
- PORALA. Alkate jauna. Ona eñen lapuñ bi dakatzudazanak.
- ALKATIA. ¿Zer ostu dabe?
- PORALA. Atezabal'go basefijan astua ostu dabe, basefikuak soluan ebiltzan artian eta jabiak ezagutu eztagijan begi bat atara dautsoe alimani gaxuari
- ALKATIA. (*Ijitua'ri*). ¿Zer? ¿Begijetako operaziñuak egiñen be ikasi dozube? Neuk topauko dantzut bezerija ona, opixijua aztu eztagixun; kartzelako euli guztijeri begijak atara arte etzatube andik atarako.
- IJITUA. Jauna, guk ez diogu astorik iñori ostu; gurea da.
- PORALA. Zubena ixan ba'litz etzan juango itxi dogunian Atezabal'go kortara, juan dan lez.
- AZTURUBA. Gose zan eta lasto usaira juan da.
- TXOMIN. ¿Ta zu, zeren usañera etofi zara len ona etofku uaren igañlia ziñala ta? (*Ijituagañik*). Beste onegaz alkañ añtuta niri amañ ogefleko zakatziañen? (*Ijitua'gana juanda*). Itoko zatut nire d'rubak atzera emoten ezpa'daustazuz. (*Samatik eltsen dautso*).
- ALKATIA. Geldi, Txomin, zeuk be efua dozu ta; gogoratu egixu ardauari egiñen dautsozun ura ta bixañgiñari osakuntzia ordaindu gura ez ta uxatu dozula; ganera, etxagotsu zeure eskutik justixija egitia; neu nago emen egiñeko biañ dana.
- BIXAÑGIÑA. Bai, alkate jauua; berofek egin bedi justixija; emon dagistala Txomin'ek zor daustana.
- ALKATIA. (*Bixañgina'ri*). Zu be ixilik egon zateke, efudun bai zara ta. ¿Zetan euki dozu, Txomin gixaxua, ofenbeste denporan sufriduten, osatu edo il, zirt edo zart egin barik? ¿Osakuntzan eztakixulako

- ala zeure irabazijari iraun erazotiafen? Batera edo bestera dala, pekatari zara.
- URTZALE. Ori da ondo berba egitia, ori.
- ALKATIA. Zuri be ixilik egotia yagotzu, gaztaya ostu dozu ta.
- URTZALE. Baña nik eztot iñor engañau; gose nintzan eta zer egingo neban ba, eguan lekutik artu baño?
- ALKATIA. Mendira juan eta beda'a jan. (*Amamerua'ri* Azturuba ta Ijituagalik). Eruan egixuz onek kontzejupeko ostatura ta euki egixuz ango euli guztijak itxutu edo begibakaftu arte.
- AZTURUBA. (*Belauniko*). Parkatu beisku, alkate jauna, eztegu geyago egingo ta.
- IJITUA. (*Urtzale'ri*). Anai, lagundu nazak kartzelatik libratzen.
- URTZALE. ¿Ni zure anayea?
- IJITUA. Bai, ni nok Juan eure anayea, txikitan Juantxu deitzen zeunstena ta juan dan aspaldijan Prantzija'ra alde eginda egon nazana. Ziñestu gura ezpa'dok, ona emen. (*Eransten dau guzu'bi-xara ta guzu'ulia tadiño*). ¿Ezagutzen nok orain?
- URTZALE. (*Arituta*). ¡Juantxu! Neure anayea az bai, baña ezclan ijitotu az?
- IJITUA. Goxiak ijitotu nayok.
- ALKATIA. (*Bijeri*). ¡Zubek, gosiak sorturikoen batzuk zarie!
- TXOMIN. ¡Ijito madarikatuba! Engañauko leuke bere ama be; dana da guzufezkua edo postixuba; esango neuke darijon berbea be iñorena daula, txefen afayuak.
- URTZALE. Ondo nayenguan ire aberaztiaren zain egon ba' nintzok.
- TXOMIN. Baña ni be, ofen esanera andria mututuko yatala ziñestuta. Diabruak eruaten ba'dauz be ezta asko galduko.
- KASILDE. Ondo egin yatzu, ondo; emendik aufera ixildu karik ekingo dautsot gura dodan guztijan.
- ALKATIA. Tira; orain guztijak ixildu zaizeze, justixija zegera nuakixube ta.
- GUZTIJAK. Bai, bai; justixija gura dogu.
- ALKATIA. Sasi-alkatia ba'naz be, enaz efena zentzun-argiz

- ezta motza be; eztot beinbe bedafa azten ikusi, baña bai-dakit sapua zein zulotan eskutau leiten. Eztot justixijako liburubetan estudijau baña neure atitari ikasi neutson esakua bat daukot goguan.
- BESTIAK. ¿Zer? ¿Zer?
- ALKATIA. Obia dala efukija gogofkerija baño.
- BESTIAK. Egija da, egija.
- ALKATIA. Eta ofegañik etzañubet gogofian artu gura.
- BESTIAK. Ondo egiña, ondo egiña,
- ALKATIA. Batez be, kalterik egin eztaustazubelako.
- BESTIAK. Ezta egingo be.
- ALKATIA. Beraz, parkatu egijozube alkafi ixan dozubezan eztabaidak eta kilu.
- BESTIAK. ¡Bixi bedi gure alkatia!
- TXOMIN. Nik eztabaidak parkatzen dodaz baña amaf ogerlekuak ez.
- ALKATIA. (*Ijituari*). ¿Aldian daukozuz Txomin'ek emon dautzuzan dirnbak?
- IJITUA. Bai jauna.
- ALKATIA. Atara egixuz ba.
- IJITUA. (*Atara ta Alkatia'ri emonaz*). Beutsoz.
- ALKATIA. (*Amamerua'ri*). Befogetamaf peseta onek efiko bialtsu gaxuen artian banatzeko dira, ardaominez gexorik dagoz ta.
- TXOMIN. Len be esan dautsot ura ixan ezik eztautsodala ardauari ezer egiten.
- ALKATIA. Bardin da; uraren dirubak dira ta ura efijarena da, ez zuria.
- BESTIAK. Efijarena da, bai.
- ALKATIA. Orain, Urtzale'ren gaztaya guztijon artian jan dagigun Txomin'ek ardao piska bat emon gura ba'dausku.
- AMAMERUA. Baña gaztaya ezta Urtzale'rena artzañena baño.
- ALKATIA. Ori ezta efijan jazo dana ta eztaukot nik bera-gaz zer ikusirik; Urtzale'ren kontzientzirako isten dot
- URTZALE. Bai jauna; itxi neure kontzientzirako.
- GUZTIJAK. Jan daigun ba.
- ALKATIA. Egon, neuk zerbait esan arte.

— 25 —

Jentiaak euki aŕen baŕe eŕeko gaŕa
Enaz mundu onetan epale bakaŕa
Amaika bai-dago bai emia nai aŕa
Eztauna ikusten bere begiko samaŕa,
Ebagiko leukena iñoren bedaŕa
Osoik gordetiaŕen beria daun laŕa.



